


/ Nabarmentzekoak

- > 148.000 eurotik gora merkataritza eta ostalaritzako hiru elkarerentzat (2. or.)
- > Mario Benso espezialista, dibulgatzaile eta programatzailea, Getxo Jazzaren arduradun artistiko berria (3. or.)
- > "Flyscheko dragoia", Bizkaiko kostaldeko antzinako zaindariari buruzko argitalpena (4. or.)



**"Hitz potoloak"
Alex O'Doghertyren
umore lotsagabeko
bakarrizketan
(3. or.)

Nazioarteko Folklore Jaialdia. Hilaren 18tik 20ra, 20:00etan, Muxikebarrin.
3€/saioko (abonua: 7€).

Kontzertua. Hilak 19, larunbata, 18:00etan, Kristo Eroslearen parrokiaren, zuzendaritza koraleko 43. kurtsoaren azken kontzertua.

**A-
GENDA**

Algortako, Neguriko eta Andra Mariko 316 puntutan argiteria publikoa berritzeak 40.000 euroko foru diru-laguntza lortu du

Udalak 40.000 euroko diru-laguntza jaso du, Algortan, Neguriko eta Andra Mariko argiteria publikoko 316 puntu berritzeko lanetarako, energia-eraginkortasunaren arloan Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako laguntza-lerroari dagokiona. Jasotako laguntza horrek indartu egiten du Udalak efizientzia energetikoaren, jasagarritasun finantzarioaren eta eraginkortasun eta efizientziaren arloan udalerririk dituen baliabideen kudeaketan egiten duen lan ildoak.

Gogoratu luminariaren puntu berri bakoitza urtebetean amortizatuko dela, hiru lanpara aldaketa arte aurreztuko direla eta ez dela beharrezkoa izango luminaria berriak ordezkatzeko datozen 20 urteetan (luminaria berriek funtzionamenduaren %80ko bizitza baliagarria dute epe horretatik gora), 10 urteko bermea izanik.

Aldian-aldian ordezteko lanak Algortan
Aipatutako jarduerarekin batera,



udal mantentze zerbitzuak Algortako hainbat kaletan LED ekipoekin ordeztzen jarraitzen du dagoeneko agortuta dauden lanparen 45 luminaria (argi laranja sortzen dutenak, 2 urte eta erdiko bizitza baliagarria dutenak). Argi zuria goa eta eraginkorragoa jartzen jarraituko da, izan ere, egungo argiekin puntu bakoitzeko 185w kontsumituzetik berriekin 75w kontsumituzera igaroko da, eta,

beraz, argi puntu bakoitzeko 125 euro aurreztuko dira urtean. Kopuru hori, 2,5 urtean behin aldatu beharrezko pizte eta lanpara ekipoe bakoitzak balio duen 160 euroei gehituta, puntu bakoitzeko inbertsioa urtebetean amortizatzen da. Horrek esan nahi du kontsumo elektrikoan %60 aurreztuko dela. Aipatutako 45 puntuak berritzeak, soilik, urtean 9.000 euro aurrezteak dakar.

Lehen jarduketa horren ondoren, Algortako beste eremu batzuetan beste 45 luminaria berritzen jarraituko da (Bidezabaletik Euskal Herriraino).

Leku jakin batzuetan, altuerako lanek eragina izan dezakete ibilgailuen eta/edo oinezkoen zirkulazioan. Nolanahi ere, eragin horiek une batekoak izango dira, eta trafikoa ahalik eta lasterren hasiko da berriro.

Santa Anan laster hasiko dira lanak Bestalde, Areetako Santa Ana auzoan 152 argi berritzeko lanak esleitu dira. Jarduketa horren ondorioz, energia-kontsumoan eta gastu arruntean %47 aurreztuko da, eta elektrizitatearen fakturan 15.300 euro aurreztuko dira urtean. Lanak uda honetan egingo dira, 125.000 euroko kostua izango dute eta 11 asteko iraupena izango dute. Gainera, laster lizitatuko da bideko 500 argiren hornidura, eta horrek faktura elektrikoan urtean 82.120 euro baino zertxobait gehiago aurrezteak ekarriko du.

Ereagan eta Portu Zaharrean TAOren bereizgarria duten egoiliarrek Algortan ere aparkatu dezakete udan

Ereagako hondartzatik Portu Zaharrera bitarteko eremuaren (5. gunea) TAOko egoiliar-bereizgarria duten eta horren ordainketan egunean dauden pertsona guztiei Algortan ere (1. gunean) aparkatzeko baimena eman die Udalak. Baimen hori irailaren 30era arte bakarrik egongo da indarrean, egun horretan amaitzen baita 5. eremu horretan aparkatzeko erregulazioa. Beraz, TAOren 5. gunean aparkatzeko baimena duten egoiliarrek, askatasunez eta ordutegi-mugarik gabe aparkatu ahal izango dute bai gune horretan bai 1. gunean, nahi duten moduan. Bosgarren guneak 528 plaza inguru ditu araututa, eta horietatik 56 egoiliarrentzat dira, batez ere Portu Zaharrean.

Neurriak hondartzaren eta, bereziki, Portu Zaharrean inguruan bizi diren pertsonen uda garaian eragiten zaizkien mugak arintzen ditu; izan ere, inguru



hori hareatza- eta aisialdi-gunea denez, aparkatzeko eskaria bete egiten da, eguraldi onaren ondorioz edo inguruan antolatzen diren ekitaldien (ekitaldi kulturalak, kontzertuak, jaiak...) ondorioz; batzuetan zirkulazio murrizketak ere eragiten dituzte bertan antolatutako ekitaldiek.

"Muga horiek ezinbestean eragiten diote hondartzaren inguruan bizi diren egunerokotasunari, bereziki Portu Zaharrean bizi direnei; izan ere, biztanleria-dentsitate handiena eta aparkalekurik eza biltzen dituen espazioa da, batez ere ibilgailuen trafikora mugatutako oinezkoentzako gunea delako. Horregatik, Udalak azterlan batzuk egin ditu, eta, azkenean, salbuespeneko neurriak proposatu ditu uda iristean sortzen den arazoa konpontzeko eta inguruko bizilagunei irtenbide bat eskaintzeko", adierazi du Janire Ocio Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak.



txupinazoa eta buruhandiak; 20:30h, sardina jana, eta 22:30h, kontzertua.

Nazioarteko Folklore Jaialdia. 20:00etan, Muxikebarrin, Itxartu Dantza Taldea (Getxo). 3€ (abonua 7€).

UZTAILAK 19 LARUNBATA

Santa Anako jaiak. 10:00h, xake txapelketa; 11:00h, saskibalo txapelketa; 12:00 eta 18:00h, txikigune; 13:00h, tortilla txapelketa; 14:00h, ipuin kontalaria; 16:00h, Koadri-la txapelketa; 18:00h, igela eta txapela txapelketak; 20:30h, saiheski jana, eta 22:30h, kontzertua.

Getxo Eszena Kalean. Zirkoa. 18:30ean, Areetako Geltokiko plazan, "Claudette", Balancetoi & Maleta Company. Sarrera doan.

Nazioarteko Folklore Jaialdia. 20:00etan, Muxikebarrin, Kud Branko Cvetkovic (Serbia). 3€.

Kontzertua. 18:00etan, Kristo Eroslearen parroki-
an, zuzendaritza koraleko 43. kurtsoaren amaierako kontzertua. Antolatzailea: Euskal Herriko Abesbatzen Elkarte.

Antzetzutako bisitak. Portu Zaharra bere sustraietatik. Irteera: 11:00etan, Ereagako Turismo-
moko bulegotik. 6€ (12 urtetik beherakoak doan). Info: <https://labur.eus/uzdkxi86>

UZTAILAK 20 IGANDEA

Santa Anako jaiak. 11:00h, futbol txapelketa; 12:00h, txikigune; 13:00h, paella txapelketa; 17:00h, ur guda; 17:30h, aparra; 18:30h, herri kirolak; 19:30ean, sari banaketa; 23:00h, zinea, eta 24:00etan, jai amaiera.

Kontzertua. Kristalezko kioskoa. 13:30ean, Muxikebarrin, Jon Gurrutxaga & Urbil Artola. Sarrera doan.

Nazioarteko Folklore Jaialdia. 20:00etan, Muxikebarrin, Ballet Folklórico de la Universidad de Colima (Mexiko). 3€.

UZTAILAK 10 OSTEGUNA

Jabekuntza Eskolaren ikasturtearen amaiera. 18:00etan, Gurarin, Rakel Molinaren "La vida moderna" bakarriketarekin. Izenematea gomendatzen da: gurarietxea@getxo.eus

UZTAILAK 11 OSTIRALA

Umorezko ikuskizuna. 20:00etan, Muxikebarrin, "Nahastumbury" (euskaraz), Barrekerarekin. 8€.

UZTAILAK 12 LARUNBATA

Umorezko ikuskizuna. 20:00etan, Muxikebarrin, "Palabras mayores" (gaztelaniaz), Alex O'Dogherty-
rekin. 8€.

Getxo Eszena Kalean. Zirkoa. 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Claudette", Balancetoi & Maleta Company. Sarrera doan.

Antzetzutako bisitak. Portu Zaharra bere sustraietatik. Irteera: 11:00etan, Ereagako Turismo-
moko bulegotik. 6€ (12 urtetik beherakoak doan). Info: <https://labur.eus/uzdkxi86>

UZTAILAK 13 IGANDEA

Haur ikuskizun musikala. 16:00, 17:15 eta 18:30ean, "Bob Marley for babies", La Petita Mamalugarekin. 0-3 urte. 6€.

Kontzertua. Kristalezko kioskoa. 13:30ean, Muxikebarrin, Lorelei Green. Sarrera doan.

UZTAILAK 18 OSTIRALA

Santa Anako jaiak. 17:00h, Txikigune; 19:00h,

148.000 eurotik gora merkataritza eta ostalaritzako hiru elkarterentzat

Udalak 148.058 euroko diru-laguntza eman die udalerriko merkataritza- eta ostalaritza-sektoreetako hiru elkarteri, 2025eko Dinamizazio Ekonomikorako Laguntzen 1 eta 3 ildoei dagokienez.

Getxolan-Ekonomi Sustapen Arloko zinegotzi den Juanma Gonzalezek gogorarazi duenez, "laguntza horien helburua da laguntzea eta sustatzea Getxoko merkatarien eta ostalaritzaren eta jatetxeen elkarteek dinamizazio ekonomikorako jarduerak egin ditzaten eta beren erakundeetan asoziazionismo maila handitu dezaten. Azken batean, elkartei eta elkarteetako establezimenduei lagundu nahi diegu udalerrian ikusgarritasun eta integrazio handiagoa izan dezaten".

• **1. ildoak** 114.108 euro eman ditu, hainbat mota-tako jardueren bidez, merkataritza-ardatzak ikusa-



razteko, sustatzeko eta dinamizatzeko ekintzak laguntzeko.

Algortako Dendak elkar-teak 32.472 euro jasoko ditu honako proiektu hauetarako: Euskararen alde (Euskaraldiari lotutako proiektua), Algortako Dendak eta Romo Bizirik taldeen arteko zozketa gurutzatua, Merkataritzari laguntzea iragarkia eta Gure kaleetan kaleko desfilea.

GetxoEnpresak 62.390 euro jasoko ditu merkataritza-sustapeneko bideo indibidualizatuak egiteko proiektu baterako, joera

eta lehiaketa sortuz (erakusleihen proiektuak), eta Bota Bertso eta Getxo Dastatu egitasmoetarako.

Romo Bizirik-ek 19.246 euro lortuko ditu Auzoa koloretzatzen (merkataritza-faxadak berreskuratzea) eta Romotik Mundura (Saltokien ekitaldi eta tokiko azoka) ekimenetarako.

• **3. ildoak**, asoziazionismoa mantentzeko eta sustatzeko denak, 33.950 euro banatuko ditu: Algortako Dendak-ek 7.700 euro jasoko ditu, GetxoEnpresak 20.190 euro eta Romo Bizirik-ek 6.060 euro.

Lau proiektuk aterako diete etekina enpresak profesionalizatzeko laguntzei

Aurten, lau proiektuk jasoko dituzte Udaleko Ekonomia Sustapen Arloak bultzatu beharreko esparru estrategikoetako profesionalen eta enpresaburuen elkartei zuzendutako dinamizazio-jarduerak egiteko bideratzen duen deialdiaren 2. lerroko diru-laguntzak. Proiektu horiek garatzeko 45.625 euroko diru-laguntza eman da, hain zuzen ere.

Getxon egingo diren lau proiektuak honako hauek dira:

• **Getxo 3D Lab.** 3D Diseinu- eta Inprimaketa-tailer praktikoak. Aniztasunerako ekosistema teknologikoa eta soziala sustatzeko 3d lan Elkarteak gidatuta, 11.800 euroko subentzioa jaso du proiektu hori egiteko eta KSlen eta Itsasoaren eta Irristatzearen eremuko negozioak ikusarazteko eta ukiarazteko.

• **Nola irabazi dirua Arterekiko maitasunagatik zure sormen askatasuna kutsatu gabe.** Karraskan Euskadiko esperientzia

sortzaileen Sarea buru dela, beste 11.800 euroko diru-laguntza jaso du. Hainbat prestakuntza modulu dira, sektoreko profesionalen pentsamoldea aldatzeko, ikuspegi berri hori beren egunerokoan eta negozioen kudeaketan aplikatu ahal izateko tresna praktikoak eskainiz.

• **BAGARA II.** Bizi amaierako etapan aukera-lerroak Getxoko sektore estrategikoetarako negozio aukera zehatzekin konektatuz, 11.250 euroko diru-laguntza izango du. EIDE euskal diseinuaren Elkarte buru duela, bideratuta dago aurreko fasean antzemandako aukerak tokiko negozioiko eta garapen ekonomikoko ekimen zehatz bihurtzera.

• **NAUTICA'LAB.** Sektore nautikoko profesionalentzako prestakuntza praktikoko tailerentzat 10.775 euroko laguntza eman du Udalak. NAUTAN-Euskadiko Enpresa Nautikoen Elkartearen gidaritzapean, urtean zehar hainbat profesionalizazio- eta networking-ekintza egingo ditu sektore nautikoari zuzenduta.

Getxoko negozioek tokiko benetakotasun zigilua izango dute

Getxo Enpresak ekimen berri bat jarri du abian, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailaren laguntzarekin, eta, horren bidez, lehen fase batean, bertoko berrogeita hamar bat negozio Getxo Benetakoa zigiluarekin ezagutuko dira, Getxoko produktu edo zerbitzu 'autentikoa' edo 'isila' izango dena.

GERTUapp kanpaina komertzial digitalen aplikazioari lotuta, jardueraren helburua da Getxoko saltokiek eta negozioek tokiko nortasuna-



ri egiten dioten ekarpenari balioa ematea: bere historia, hurbiltasuna, izaera paregabea, kultura, eta Getxoko bizimoduari eguneroko egiten dioten ekarpena.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurlaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bitzitari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Mario Benso, espezialista, dibulgatzaile eta programatzailea da Getxo Jazzaren arduradun artistiko berria

Mario Bensok hartuko du bere gain Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren arduradun artistiko lana, ekitaldiaren hurrengo ediziotik aurrera. Estatu mailan ibilbide nabarmeneko jazz dibulgatzaile eta espezialistetako bat da. Jazzaren eta kulturaren esparruan ibilbide luzea egin du, askotariko alderdietan, kazetaritzatik hasi eta programaziora arte. Bensok harreman estua du Getxo Jazzekin, 1994az geroztik harekin kolaboratzen baitu jaialdiko Talde Lehiaketako epaimahaikide gisa.

Proiektu berri honetan, jaialdiaren atal artistikoaz arduratuko da, 37 ediziotan jaialdiaren arduraduna



izan zen Iñaki Saituaren erretiroarekin batera, eta jaialdiaren beraren ardura Luzia Martínek hartuko du, erakundean 17 urte baino gehiagoko esperientzia duen Getxo Kulturako teknikariak (argazkian Getxo Kulturako zuzendari

den Xabier Payarekin batera). Lantaldea eta lan prozedurak guztiz ezagunak dira berarentzat, eta horrek erraztu egingo du bere zeregina, baita Getxo Kulturarena ere, urtez urte goi mailako jaialdi bat antolatzen jarraitzeko.

“Hitz potoloak” Alex O’Doghertyren umore lotsagabeko bakarrizketan

Alex O’Dogherty irlandar jatorriko aktore eta umorista espainiarra Muxikebarriko agertokira igoko da larunbatean, uztailak 12, *Palabras mayores* bakarrizketa taularatzeko. Bakarrizketa horretan, umore lotsagabea eta introspektzioa hitzak maneiatzen dituen erraztasun berarekin gurtzatzen dira.




Bakarrizketa bikain horrek kontzientzionala dena desafiaturik du eta neurririk gabe egiten du: gauza bera esaten dizu bere txakurrak, bere hiletaz edo denok zein azkar goazen gaiaz. “Aurreko guztiaren oso desberdina den ikuskizun bat, bere burua orduko milara doalako”. Emanaldia arratsaldeko 20:00etan hasiko da. Sarrera: 8 €.

Badator Barrexerka “Nahastumbury” euskarazko umore ikuskizunarekin

Barrexerka konpainia donostiarrak bakarrizketak, esketak eta antzezpenak uztartzen ditu, euskarazko umorea ardatz hartuta. Muxikebarrin arituko da ostiral honetan, hilak 11, 20:00etan, *Nahastumbury* antzezlana taularatzeko.



Eszenaratze zirraragarriarekin eta tentsioz betetako narratibarekin, obra honek gure existentzia markatzen duten aldaketa eta haustura uneei buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu. Sarrerak 8 euro balio du.



L.A.B. Trio talde alemaniarrak irabazi du Getxo Jazzeko Talde Lehiaketa

L.A.B. TRIO talde alemaniarrak irabazi zuen Nazioarteko Jazzaldiko Talde Lehiaketa, eta ondoren Cesar Vidal & Artikulation Band boskoteak bigarren saria eskuratu zuen. Bestalde, David Guerreiro, IMB Special 4tet taldeko kontrabaxu-jotzailea, bakarlarari onena izendatu zuen jaialdiko epaimahaia. Lehen saria 4.500 euro eta zuzeneko CD baten grabaketa da. Gainera, talde irabazleak Dave Douglas Quarteten aurretik jo zuen jazzaldiaren azken egunean, eta, horrez gain, Eivissa Jazz (Eivissa) jaialdian parte hartzeko aukera izango du. Lehiaketako bigarren sariak 1.900 euro irabazi zituen eta bakarlarari onenak 950 euro.

“Bob Marley for babies” ikuskizun musikala

Muxikebarrin, igande honetan, uztailaren 13an, *Bob Marley for babies* musika-ikuskizuna eskainiko




da. 0 eta 3 urte bitarteko haurrei zuzendutako proposamena da. Bertan, abesten duten lau dantzari edo dantzan ari diren lau abeslariak eta biolontxelo jotzaile batek Bob Marleyren kantu handien ahots moldaketa sofistikuak interpretatuko dituzte giro bero eta lasaian. 16:00etan, 17:15ean eta 18:30ean antzeztuko da.

Sarrerak 6 euro balio du.

“Claudette”, zahartzaroari omenaldia

Balancetoi & Maleta Companyren *Claudette* doako zirku ikuskizuna ikusi ahal izango da, larunbat honetan, hilak 12, 18:30etik aurrera, Areetako Geltokiko plazan, Getxo Eszena Kalean kaleko arte eszenikoen programaren barruan. Biloba jostalari baten istorioa da, eta bere amona samur, ameslari eta kaskagor samarrarena; horrek, egun osoan bakarrik eta eserita egoteaz nekatuta, berriro bizirik sentitu nahi du.



Lorelei Green talde bizkaitarrak “Lava” albumeko abestiak joko ditu Kristalezko Kioskoan


Lorelei Green talde bizkaitarrak, Leire Aparicio buru duela, kontzertua eskainiko du igandean, uztailak 13, Muxikebarriko kanpoaldean, Kristalezko Kioskoaren programazioaren barruan. *Lava* bere bigarren diskoko abestiak joko dituzte, James Morgan britainiarrak gaztelaniaz idatzitako letrekin grabatu eta ekoiztako 9 abesti, batzuetan distortsioarekin, gitara elektrikoarekin, bateriarekin eta ahots nahastezinarekin jolasten duen kontrabaxu baten soinuaz. Proposamen horren ondorioz, Chris Isaakekin edo The Watterboysekin kartela partekatu zuten BBK Bilbao Music Legends Fest jaialdian, 2023ko ekainean.

“Flyscheko dragoia”, Bizkaiko kostaldeko antzinako zaindariari buruzko argitalpena

Udalak eta Jata-Ondo Landa Garapenerako Elkarteak *Flyscheko dragoia* argitaratu dute, familia osoarentzako ilustrazioak biltzen dituen aldizkaria. Horren bidez, “Bizkaiko kostaldean bizi den eta antzinako istorioetako leviatan baten antza duen tamaina izugarriko eta suge formako itsas izaki honen kondaira ezagutarazi nahi dute”. Erakunde horien helburua da dragoia Flyscharen maskota bihurtzea eta pertsonaia hori etorkizunean sustatzea, beste ekimen batzuen bidez: web atal bat, merchandisinga eta abar.

Bizkaiko Flyscha naturgune bat da, kostaldean dagoen parke geologikoa, batez ere Getxo eta Uribe eskualdeko udalerrien artean dagoena: Sopela, Barrika, Plentzia, Gorliz, Lemoiz, Bakio eta Fruiz.

Esaten denez, Flyscheko dragoia Bizkaiko kostaldea-



ren antzinako zaindaria da, eta haren babesza zaintzen du, ekosistema bakar horren aberastasun naturala gordez. Argitalpenean azaltzen den bezala, besteak beste, Galea lurmuturreko Nummuliteetan bizi da. “Getxon marea jaisten denean, Punta Galeako itsaslabarretan fosil moduko txanpon txiki batzuk agertzen dira, nummuliteak izenekoak. Gau guztietan txanpon bitxi hauek kontatzen ditu banan-banan herensugeak. Orro bat entzuten baduzu, ez dira itsaslabarren kontra jotzen ari diren olatuak, Flyscheko dragoia “aberatsa naiz!” oihukatzen dagoela baizik”.

Aldizkaria euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu da, eta dragoia bizi den lekuak, haren aztarnak eta dragoiei buruzko intereseko beste leku batzuk adierazten ditu. Gainera, denbora-pasa atal bat ere badu. Turismo bulegoetan eta online dago eskuragarri. Bisita geologikoetan ere emango da.



Esklerosi Anizkoitzaren aldeko elkartasun txonboak berriro Ereagan

Amaia Aguirre alkateak, Udaleko, Aldundiko, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, gaixotasuna duten pertsonen eta hainbat herritarrek bat egin zuten igandean, uztailak 6, *Busti Zaitetz, Esklerosi Anizkoit-*

zaren alde izeneko ekimen solidarioaren 28. edizioaren ekitaldi nagusiarekin, ohi bezala, Ereagako hondartzan. Ekimena Euskadiko 50 bat hondartzatan eta igerilekutan izan zen, nerbio-sistema

zentralaren patologia kroniko eta endekapenezkoa ikusarazteko. Bizkaian 1.400 pertsona inguruk dute gaixotasuna. Jardunaldiaren beste helburuetako bat elkarteentzako dirua biltzea izaten

da, gaixotasuna duten pertsonen errehabilitazio-zerbitzuak eskaintzen jarraitu ahal izateko, eta, aldi berean, gaixotasunaren tratamenduetan aurrera egiten jarraitu ahal izateko ere.

KIROLAK



Urrezko domina Getxo Arraunentzat Espainiako Arraun Olinpikoko Txapelketan

Jone Gonzalez eta Begoña Vidal Getxo Arrauneko arraunlariak dira Espainiako arraun olinpikoko txapeldun berriak lemazainik gabeko bikoaren modalitatean (2-), kadete mailan. Txapelketa Sevillan jokatu zen eta Getxo Arraunen espedizioa 16 kirolarik osatu zuten, Iker Verdurasen eta Arkaitz Ruizzen zuzendaritzapean. Urrezko dominaren arrakastari, gainerako arraunlari getxotarren zenbait jarduera nabarmen gehitu zitzaizkion, eta, beraz, klubak oso modu positiboan baloratzen du txapelketa horretan izan duen parte hartzea, bai lortutako emaitzengatik, bai lortutako esperientziagatik.



Sophie Steur eta Miguel Damas, ITF Getxo Txapelketako irabazleak

Sophie Steur alemaniarra eta Miguel Damas madrildarrak irabazi zuten joan den igandean, hilak 6, R.C. Jolasetaren pistetan jokatu zen Getxoko 33. Nazioarteko Tenis Txapelketa. Emakumezkoen finalean, bi ordu eta erdi iraun zuena, alemaniarra, bigarren zerrendaburuak, lehenengoari irabazi zion, Ruth Rourari, 4-6, 6-3 eta 6-2. Gizonezkoen finalean, Felix Gill britainiarra erretiratu egin zen lesio baten ondorioz, eta horrek garaipena eman zion Damasi, lehen setean 6-4 irabazi ondoren. Horrela, lur harrotuko txapelketa hau bi aldiz irabazi duen lehen tenislaria da, 2024an ere irabazi baitzuen.



Eurohockeyak 2024. Urteko Klub gisa aitortu du RC Jolaseta

Belar Hockeyko Europako Federazioak (Eurohockey) 2024. Urteko Kluba izendatu du RC Jolaseta, kirol hori sustatzeagatik eta azken urte honetako kirol ekitaldi garrantzitsuak antolatzeagatik, hala nola Espainiako Haur Mailako Txapelketak, Masterra, Hockey + lehiaketa eta Gabriel Arias Memoria- la edo *Jolaseta, balioen familia* delako programa. Kategoria guztietan duen ordezkari goren eta jokalarien kirol eta giza garapena ere nabarmen-tzen dira. Azken horri esker, kide olinpiko eta internazional gehien dituen euskal kluba da elkarte getxotarra.